

# Hubert Montagnerrek, haurren pedagogiako aditu frantsesak, Mondragon Unibertsitateak antolatutako jardunaldian hartu du parte

2008/01/07

Mondragon Unibertsitateak haurren hezkuntzari buruzko jardunaldia antolatu du, 'Hezkuntza aztergai psikologian oinarrituta-Una mirada a la educación desde la psicología' izenekoa.

Jardunaldia abenduak 14an ospatu zen Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Haurren bizitzaren lehen urratsetako portaeraren (berezkoa edo ikasitakoa) eta haren garapen integralaren arteko lotura agerian jartzea izan du helburu jardunaldiak, baita portaera jakin batzuk sustatzeko hezitzaileen lanaren garrantzia azpimarratzea ere.

Hubert Montagner etologo frantsesak, haurren garapenari buruzko gaietan aditua eta Frantziako osasunaren eta medikuntzako ikerketaren Institutu Nazionaleko ikerketa-zuzendaria denak, jardunaldi horretan hartu zuen parte. Bertan, haurtzaroan haurren garapenerako giltzei buruz hitz egin zuen, eta erritmo kognitiboak eta biologikoak errespetatzearen garrantziari buruz ere bai.

Montagner irakaslea da hainbat unibertsitatetan, esaterako, Pariskoan, Bordelekoan eta Brasiliakoan; eta aholkulari gisa lan egiten du Harvardekoan eta Lausannekoan. Gainera, Frantziako osasunaren eta medikuntzako ikerketaren Institutu Nazionaleko ikerketa-zuzendaria da, eta hezkuntzarekin lotura duten Italiako, Portugaleko, Ameriketako Estatu Batuetako eta Espainiako hainbat erakunde publikotako lanarekin uztartzen du kargu hori. Liburu eta artikulatu anitz idatzi ditu, makina bat herritan argitaratu direnak.

Halaber, unibertsitateko irakasle Rafael Cristobalek idatzitako liburua "Fundamentos del ser humano. Una psicología para educadores" aurkezteko aukeraturiko esparrua izan zen jardunaldia. Liburu horretan adituak, lehenik eta behin, bizitzan zehar gizakiok ditugun portaerak deskribatu ditu, bai berezkoak (besteak beste, atxikimendua, afektua, esploratzea, gainerakoekiko harremanak eta sexu-jokabidea), bai ikasitakoak, azken finean gauzak egiteko moduarekin zerikusia dutenak. Bigarrenik, Cristobalek portaera jakin batzuen eta haurren garapenaren artean dagoen lotura aztertzen du, baita garapen egokia lortzeko portaera jakin batzuk sustatzeak duen garrantzia ere.

Jardunaldian zehar, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko kide Juanjo Agirrezabalak hitzaldia eman zuen. Hitzaldi horretan 0-3 urteko haurren irakaskuntzari buruz hitz egin zuen, fase horrek duen garrantziaren eta erronken inguruan.

## Hazitegi

Orobat, Alexander Barandiaranek, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle ere badenak, "Hazitegi" proiektuari buruzko erakusketa eskaini zuen. Proiektua duela 6 urte jarri zuen abian HEZI Institutuak, Hezkuntza Prozesuen Departamentuarekin elkarlanean. Haren helburu nagusia hau da: haur-eskolek (0-3 urte bitarteko etapa) adin horretako ikasleen garapen osasungarria (gorputzaren, adimenaren eta gizartearen aldetik orekatua) bermatzeko betetzen duten eginkizun garrantzitsua nabarmendu eta eskola horien ezaugarriak aztertzea.

Proiektu horren esparruan hainbat ekimen gauzatu dira eta, ekimen horietan, puntako adituak aritu dira parte hartzen, hala nola Marinus Van Ijzendorp, Karen Grossman eta Hubert Montagner bera, gaur gurekin dagoena eta bi hitzaldi eskainiko dituena.

2005-2006 ikasturtean, Herbeheretako Leideneko Unibertsitatearekin lankidetzan, Mondragon Unibertsitateak konparazio-ikerketa bat jarri zuen abian, haurren garapen integralean eragin positiboa edo negatiboa duten elementuak ezagutu eta, horrela, aldagai horietan esku hartzeko xedez.



Rafael Cristobalek aurkeztu zuen liburua, hain zuzen ere, Hazitegi proiektuaren esparruan egindako bidearen emaitza da, eta ikerketa horri esker ateratako teoria nagusiak biltzen ditu.